

[Eusk/Cast] La industria de las renovables y su vinculación con la administración

ARABA BIZIRIK :: 26/09/2023

Estos días hemos conocido que la empresa Getxo-Mirador Norte FV ha pedido permiso para instalar una central fotovoltaica de 7020 placas con una potencia de 4MW, ocupando 2 hectáreas en Ribabellosa

[Euskara]

BERRIZTAGARRIEN INDUSTRIAK ADMINISTRAZIOAREKIN DITUEN LOTUREN HARIRA

Egun hauetan jakin dugu Getxo-Mirador Norte FV enpresak baimena eskatu duela 4MW-eko instalazio potentzia eta 7020 plakako zentral fotovoltaiko bat instalatzeko. Ribabellosan bi hektarea okupatuko lituzke zentral honek eta proiektu honi Solaria enpresak Erriberabeitiko udalerrian ezarri nahi duen 50MW-ko beste zentral fotovoltaikoari gehitzen zaio.

Guzti honek, landatzeko moduko 100 hektareako lursaila okupatzea dakar; eta horretarako, dagoeneko harremanetan jartzen ari da partikularrekin eta inguruko Administrazio Batzarrekin (Ribabellosa eta Quintanilla). Solariak Getxo-Iparraldeko Begiratokia FV bezala, 1500 euro hektareako hari da eskaintzen.

Solaria, mugimendu horiek Ribabellosako Administrazio Batzarreko kidea den langile baten bitartez egiten ari da., eta hori legezkoa izan daitekeen arren, ez da etikoa. Interes-gatazka nabarmena da.

Gogoratu behar dugu Ribabellosako Administrazio Batzarrak edo honen zati batek bere garaian herrietako ura Urbide partzuergoari saldu ziola. Horretarako Ribabellosako batzarraren lehendakaria, Ur Partzuergo berriko lehendakariorde gisa izendatu zuten. Hau uraren pribatizaziorako lehen pausuak izan ziren egun, Bizkaian Bizkaiko Urak partzuergoarekin gertatzen ari den bezala.

Erriberabeitiko udalean 24 MW-ko zentral fotovoltaiko bat dago iada, Ekian zentralak 55 hektareako lursaila okupatzen du Arasurren. Honen ondoan eta Erriberabeitiarekin mugatzen, Armiñongo udalerrian, 150 MW-ko veste zentral bat instalatu nahi da. 200 hektareako nekazaritza-lursailen galera dakarren proiektu honen atzean ditugu, Iberdrola, Mondragon Taldea, Arabako Foru Aldundia eta Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

Udalerrian Arasur bezalako industrialde bat dugu, 98.000 metro karratu nabe eta G7 XXL, superetxadia, 270.000 metro karratukoa, antropizatua, ulertezina da administrazioaren jokaera. Nekazaritza-lurren galera lehenesten dute, industria-nabe horien teilatuak aldezturik okupatu gabe dauden bitartean. Obra zibileko enpresa pribatu handien interesak aurretik jartzen dituzte. Lehen sektoreak, konponbideak behar ditu, belaunaldien arteko errelebu faltari irtenbideak ematea beharrezkoa da eta gure herrian elikadura

subiranotasunaren aldeko apustua egitea bezala. Bestalde, herritarrak eragile nagusi izan ditezen ahalbidetuz, sistema elektriko deszentralizatu eta banatu berri batekin, energía komunitate energetikoen bidez sozializatuz.

Udalerri honek jasan behar duen mega azpiegituren presioa jasanezina da, honek dakarren ingurumen eta gizarte-inpaktu izugarriarekin. Proiektuen fotovoltaikeen hedapen hau gutxi bazen, orain AHTren Burgos-Gasteiz ibilbidea gehitu behar zaie, eta honi Miranda de Ebrora atera nahi dioten lotura.

Politika industrializatzaileen bitartez, Next Generation EU programako funts europarrak, enpresa transnazionalen onurarako gidatzen dituzte. Horretan omen datza landa-ingurunea eta ingurune naturala sakrifizio-arloak bihurtzen dituen trantsizio energetikoa. Hori da saltzen ari zaizkigun transizio energetikoa.

Erakundeen eta enpresa transnazionalen arteko lankidetzak, erabakiak hartzeko eremuen zentralizazioa, eta lurraldearen antolamenduari buruzko eta ingurumena babesteko legeen zanpaketa oso larria da. EAEn, lankidetzak honetan parte hartzen duten enpresa publiko-pribatu berriak, gobernuen eskutik sustatuak dira eta Iberdrola, Repsol, Klean

(Mondragon Taldea) kokapenak eta diru publikoa eskuratzeko, edo larriago, udalerri honetan gertatu den bezala, Ekiluzeko (Repsol eta Klean) merkataritza lanak udaletxeak berak egiten dituenean.

[Castellano]

LA INDUSTRIA DE LAS RENOVABLES Y SU VINCULACIÓN CON LA ADMINISTRACIÓN

Estos días hemos conocido que la empresa Getxo-Mirador Norte FV ha pedido permiso para instalar una central fotovoltaica de 7020 placas con una potencia de la instalación de 4MW, ocupando dos hectáreas en Ribabellosa, a este proyecto se le suma que la empresa Solaria quiere realizar otra central fotovoltaica de 50 MW en el municipio de Ribera Baja, lo que supone la ocupación de 100 hectáreas de terreno cultivable, para ello, ya está contactando con particulares y Juntas Administrativas de la zona (Ribabellosa y Quintanilla), ofreciendo al igual que Getxo-Mirador Norte FV 1500 euros por hectárea.

Solaria, estos movimientos los está llevando adelante por medio de un trabajador que forma parte de la Junta Administrativa de Ribabellosa, lo que puede ser legal, pero nada ético por tener conflicto de intereses.

Una Junta Administrativa o parte de ella, la de Ribabellosa, que en su día fue el germen de la venta del agua de los pueblos al consorcio Urbide, colocando al presidente de la junta de Ribabellosa como vicepresidente del nuevo consorcio de aguas. Siendo el preámbulo de la privatización del agua, como está sucediendo en Bizkaia con el consorcio Aguas de Bizkaia.

En el municipio de Ribera Baja ya existe una central fotovoltaica de 24 MW, con una

ocupación de terreno de 55 hectáreas en Arasur, la central Ekian, junto a esta y colindante a Ribera Baja, en el término municipal de Armiñón, quieren instalar otra central de 150 MW, con una ocupación de terreno agrícola de 200 hectáreas, un proyecto en el que participa Iberdrola, el Grupo Mondragón, la Diputación de Álava y el Ente Vasco de la Energía (EVE).

Ubicándose en el municipio un polígono industrial como Arasur, con una superficie de 98.000 metros cuadrados de naves y la supermanzana XXL, G7, de 270.000 metros cuadrados, ya antropizado, es incomprensible como se permite desde la administración la ocupación de terreno agrícola, sin haber ocupado previamente los tejados de estas naves industriales, poniendo por delante los intereses de las grandes empresas privadas en la obra civil, en vez de priorizar el sector primario, dando soluciones a la falta de relevo generacional y apostando por la soberanía alimentaria. Por otro lado, posibilitando que la ciudadanía sea el principal agente, con un nuevo sistema eléctrico descentralizado y distribuido, socializando la energía mediante las comunidades energéticas.

La presión de mega infraestructuras que tiene que soportar este municipio es insoportable, con un impacto ambiental y social descomunal, a todo este despliegue de proyectos fotovoltaicos se le suma el trazado del TAV Burgos - Gasteiz y la conexión del mismo con Miranda de Ebro.

Nos están vendiendo una transición energética, que ha convertido el medio rural y natural en áreas de sacrificio, por medio de unas políticas industrializadoras y captadoras de fondos Europeos, el programa Next Generation EU, para beneficio de la empresa privada.

La vinculación de las instituciones con empresas transnacionales, la centralización de los lugares de toma de decisiones, la dinamitación de las leyes de ordenación del territorio y de las de protección ambiental, es muy grave. En la CAPV esta colaboración se encuentra en las nuevas empresas participadas público-privadas que, de la mano de los gobiernos, facilitan a Iberdrola, Repsol, Klean (Grupo Mondragón) el acceso a ubicaciones y al dinero público, o como ha sucedido en este municipio, haciendo el propio ayuntamiento de comercial de Ekiluz, (Repsol y Klean).

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-la-industria-de>